

# TOLOSALDEA ZURE AHOTIK

## BIDEO LEHIAKETA

- 2026 -

Lehiaketan parte hartzeko oinarriak

### 1.- OINARRIAK

Tolosaldea Zure Ahotik Bideo Lehiaketaren **helburua**, Laboral Kutxarekin babeslegotzarekin, **12-18 urte (2014 eta 2008 urteen artean jaiotakoak)** bitarteko gazteen irudimena eta trebezia uztartuz, parte hartzea eta taldelana sustatzea da, balio positiboak bultzatuz, bideo originalen ekoizpen eta difusioaren bidez.

*Zer diozu Tolosaldeaz?* galdera honi erantzunez, eskualdeko gazteek eskualdea nola irudikatzen duten ahoz eta irudiz islatzea da helburua. Eta horretarako, ATARIAk

gazteei zuzendutako bideo lehiaketa bat abiarazi du, Laboral Kutxaren babeslegotzarekin.

## 2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Tolosaldeko 12-18 urte arteko gazteek har dezakete parte lehiaketan, **3 pertsonako taldeetan**. Honetarako, oinarriekin ados egon eta onartuz gero, *tolosaldeazureahotik@gmail.com*-era bidali beharko dira bideoak.

Partaide guztiak bete behar dute *ataria.eus* webgunean eskuragarri dagoen izen emate orria. Eremu guztiak nahitaez bete behar dira, eta horietako bat behar bezala betetzen ez bada, taldea lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea du antolakuntzak.

## 3.- EPEAK

Parte hartzeko:

**Lehiaketan parte hartu ahal izateko izen emate orria aurkeztu beharko da. 14 urtetik beherakoek, hau da, 2014, 2013 eta 2012 urteetan jaiotakoek, gurasoen sinadura aurkeztu beharko dute.**

Ondoren, lanak aurkezteko epea zabalduko da eta epez kanpo aurkeztutako bideo guztiak automatikoki geratuko dira lehiaketatik kanpo.

- **Irailaren 7tik 20ra – Izen emate epea.**
- **Irailaren 21etik urriaren 4ra – Lanen bidalketa epea.**
- **Urriaren 5etik 18ra – Bozketa epea.**

Saridunak:

Irabazleen izenak **urriaren 23an** jakinaraziko dira, horretarako egingo den sari-banaketa ekitaldi batean.

## 4.- BIDEOEN AURKEZPENEA

5-15 minutu artean irauten duen bideo bat aurkeztu beharko dute lehiaketako partaideek, gaia irekia izango da, baina beti ere eskualdearekin lotura izan beharko du eta euskaraz.

**Bideoak originala, eta beste inon erabili gabea izan behar du**, kamera, mugikor, tablet... bidez grabatutakoak izan daitezke. Horretarako, partaideek elementu artistikoak, musika, irudiak edo egoki deritzoten bestelako edozein baliabide erabil

dezakete.

**Ez da onartuko admitten artifiziala erabiliz zati batean edo osorik sortutako lanik.**

Bideoaren ezaugarriak:

- **Formatua:** bertikalean edo horizontalean grabatuta.
- **Iraupena:** 5-15 minutu artean.
- **Tamaina:** artxiboek 2 GB baino gutxiagokoak behar dute.
- **Hizkuntza:** euskara.

Bideo guztiak, ATARIAren webgunean ikusgai izango dira.

## 5.- SARIAK

A SARIA (16-18 urte)	B SARIA (12-15 urte)	C SARIA
<u>Epaimahaiaren saria:</u> 400 €-ko bonu bana talde irabazleko partaide bakoitzarentzat, eskualdeko tokiko merkatarik elkartetako edozein dendatan gastatzeko.	<u>Epaimahaiaren saria:</u> 300 €-ko bonu bana talde irabazleko partaide bakoitzarentzat, eskualdeko tokiko merkatarik elkartetako edozein dendatan gastatzeko.	<u>W e b g u n e k o erabiltzaileek bozketa bitartez aukeratutako bideoaren egileek 40 €-ko bonu bana talde irabazleko partaide bakoitzarentzat eskualdeko tokiko m e r k a t a r i elkartetako edozein dendatan gastatzeko eta ATARIAko materiala izango dituzte opari.</u>

Ezaugarri aipagarriak dituztela eta bideo batzuek aipamen berezia merezi dutela uste bada, antolaketa-batzordeak haiei sari berezia emateko eskubidea du.

Sari banaketa 2026ko urriaren 23an izango da, Villabonan kokatuta dagoen Subijana etxean, 18:00etan hasita; ekitaldian bertan ikusgai jarriko dira bideo irabazleak, eta epaimahaikideek epaiaren berri emango dute.

## 6.- EPAIMAHAIKIDEAK

Epaimahaia lau lagunek osatuko dute, eta antolaketa-batzordearen eginkizuna izango da horiek izendatzea.

Epaimahaikideek lehiaketan parte hartuko duten bideoak puntuatu eta baloratzeko irizpideak ezarriko dituzte. Nolanahi ere, bikaintasun teknikoa baino gehiago bideoaren dibulgazio-ahalmena, sormena eta interesa izango ditu kontuan epaimahaiaren erabakiak. Bestela esanda, gehiago oinarrituko da balorazioa edukian haren estalkian baino. Nolanahi ere, epaimahaikideen erabakia apelaezina izango da.

## 7.- HARREMANETARAKO

Zalantzarik baduzu, jar zaitez harremanetan antolatzaileekin

ATARIA:

- Telefonoa: 687 410 032
- E-maila: [tolosaldeazureahotik@gmail.com](mailto:tolosaldeazureahotik@gmail.com)
- Helbidea: San Esteban auzoa 20, Tolosa.

## 8.- LEGE BALDINTZAK

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, E.M. (aurrerantzean ATARIA), ez dira materiala bidaltzean, birusak edo bestelako arazoak direla eta, sor daitezkeen jazoeren erantzule.

Oinarri hauek onartzea nahitaezkoa da lehiaketan parte hartzeko, eta, beraz, sariak irabazi ahal izateko. Partaideren batek oinarrietan ezarritako baldintzak ez baditu betetzen, lehiaketatik kanpo geldituko da, automatikoki.

Lehiaketara aurkeztutako partaidea ez den beste egile batek beste hizkuntza batean egindako bideo baten edo bideo horretan oinarritutako lan baten itzulpen hutsak diren bideoak ez dira onartuko. Nolanahi ere, bideoaren edukia lehiaketan onartutako hizkuntza batera itzultzen lagun dezakete hirugarrenek.

Bideoan musika erabiltzen bada, musika horren ustiapen-eskubideek lehiaketako partaidearenak behar dute izan osoki, legez eta eskusiboki. Partaidearen erantzukizuna da baldintza hori betetzea. ATARIA baldintza hori ez betetzeak ekar ditzakeen erantzukizunetatik libre gelditzen dira.

## 9.- EGILE ESKUBIDEAK

Lehiaketara hirugarrenen jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideak urratzen dituen materialik ez dutela aurkeztuko bermatu behar dute partaideek. Horrenbestez, partaideek auzi horretatik kanpo utzi behar dute ATARIA. Hortaz, partaideek hirugarrenen eskubideei buruzko arauak ez badituzte betetzen edo arau-hausteren bat egiten badute, ATARIA ez dira horren erantzule egingo. Lehiaketako partaideari dagokio ATARIA ardura horretatik salbuestea.

Lehiaketako partaideek ATARIari uzten diote aurkeztutako bideoak ustiatzeko eskubidea non sartzen diren bideoa erabili, zabaldu, banatu, eman, publikoki komunikatu eta Internet edo bestelako ikus-entzunezko baliabide baten bidez dibulgatu, erreproduzitu eta erakusteko eskubideak. Halaber, ATARIAk bideoa eraldatu egin dezakete, muntaia laburragoak egiteko edo beste bideo batzuekin batera editatzeko. Lagapen hori dohainik eta modu ez-esklusiboan egingo da.

Bestalde, hautatutako eta jasotako lanak sustapenerako eta/edo hedapenerako erabiltzeko eskubidea dute antolatzaileek. Bideoak atal honetan zerrendatu ez diren xedetarako erabiltzeko, egilearen baimena behar da.

Ez dira onartuko hirugarrenen jabego intelektualaren edo industrialaren eskubideak urratzen dituzten bideoak. Era berean, bideoek ez dute pertsona fisiko edo juridikoen jabegoa, osotasuna edo irudi ona kaltetu behar.

Aurkeztutako bideoak ustiatzeko eskubidea lagatzeagatik, ATARIAk eskubidea dute bideoak Internet edo bestelako ikus-entzunezko baliabide baten bidez zabaltzeko edo argitaratzeko, baina ez daude horretara behartuak.

Lehiaketa amaitu ondoren, ATARIari egoki deritzen bideoak eskuragarri egongo dira euren webgunetan, antolatzaileek egoki deritzoten arte.

ATARIAn ditugu eta guretzat gordeko ditugu jasotako lanak publikatzeko eskubideak.

## 10.- DATU PERTSONALEN BABESA

### - ZURE DATUEN ERANTZULE

Datu Pertsonalak Babesteko legedia betez, jakinarazi nahi dizugu emandako datu pertsonalak ATARIAk tratatuko dituela, horiek baitira Tratamenduaren Erantzuleak.

### - TRATAMENDUAREN XEDEA

Emandako datu pertsonalak lehiaketa hau kudeatzeko, tratamenduaren erantzulearen legezko betebeharrak burutzeko eta tratamenduaren erantzulearen legezko interesa betetzeko erabiliko dira.

### - ZENBAT DENBORAZ GORDEKO DIREN

Emandako datu pertsonalak epe zehatzik gabe kontserbatuta izan daitezke.

### - ERABILTZEKO LEGITIMAZIOA

Zure datuak tratatzeko oinarri juridikoak emandako baimena eta tratamenduaren legezko interesa dira.

Hamalau urte ez badituzu zure gurasoen baimena behar duzu zure datu pertsonalak emateko (lehiaketan parte hartzeak hauen baimena duzula esan nahi du).

Bideoetan adin txikikoak agertzen badira, egileak baimena bermatu beharko du (adin txikikoen guraso edo tutoreen baimen sinatua aurkeztuta).

### - SEGURTASUN NEURRIAK

Laboral Kutxak eta ATARIAk parte hartzaileen datu pertsonalak babesteko konpromisoa daukate; hala, eskura dituzten baliabide guztiak erabiliko dituzte, interesdunen segurtasuna eta pribatutasuna bermatzeko.

#### - HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan parte hartzeak aurkeztutako bideoen zabaltze eta hedatze ekintzak dakar nahitaez.

Era berean, lehiaketa honetan parte hartzeak partaideen (eta batez ere irabazleen) identifikaziorako datuak argitaratuak izan daitezkeela suposatzen du.

ATARIAk lehiaketan parte hartu duten bideoetan azaltzen diren irudiak eta ahotsak komunikabide edo euskarri desberdinetan zabaltze daitezke, bai internet erabilita, bai beste baliabideren bat erabilita.

#### - ESKUBIDEAK

Pertsona orok du eskubidea bere datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, datuen erabilera mugatzeko, tratamenduari aurka egiteko edo beste norabait eramateko. Horretarako, [tolosaldeazureahotik@gmail.com](mailto:tolosaldeazureahotik@gmail.com) helbidera mezu bat bidali besterik ez da egin behar, baliatu nahi den eskubidea adierazi, eta NANaren kopia edo identifikatzeko balio duen beste dokumenturen baten kopia erantsi. Eskaera lege-ordezkarri moduan egiten ba, berriz, nortasun agiriaren kopia ez ezik, ordezkaritza horren egiaztagiria ere bidali beharko da.

Halaber, adierazitako adostasuna une oro bertan behera uzteko eskubidea du. Baimena ukatzeak ez du inolako eraginik izango baimena ukatu aurretik egindako erabileraren zilegitasunean.

Pertsona orok eskubidea du erreklamazio bat jartzeko kontrol-agintariaren aurrean (kasu honetan, Datuak Babesteko Bulegoa: [www.aepd.es](http://www.aepd.es)), baldin eta uste badu bere eskubideak urratu direla bere datu pertsonalen babesari dagokionez.

#### 11.- AZKEN KLAUSULAK

- Lehiaketan parte hartzeko ezinbestekoa da klausula hauek onartzea.
- Oinarrietan jasotzen ez diren gaiei dagokienez, ATARIAk izango du erabakitzeko eskubidea.
- Arazo teknikoak direla eta ikus ezin daitezkeen bideoen erantzule ez dira antolatzaileak.
- Epaimahaikideek ezin dute lehiaketan parte hartu. Era berean, ezin dute parte hartu lehiaketaren antolaketan aritu direnek, hala nola, ATARIAko langileek.
- ATARIA ez da egingo beren kontrolpetik kanpo dauden, edo sareko operadore, zerbitzu-emaile bitartekari edo hirugarrenek sortutako jazoera hauen erantzule: galerak edo atzerapenak, etenaldiak, funtzionamenduaren eskuragarritasun edo jarraitutasun eza, transmisio-arazoak, informazioaren galera, iruzurra, sareko akatsak, softwarearen

funtzionamendu-arazoak, sarrera-, komunikazio- edo erantzun-akatsak, lehiaketaren aldaketak eta abar.

- ATARIAk eskubidea du dokumentu ofizialen bidez (NAN, gidabaimena eta abar) lehiaketako partaideen nortasunari buruzko egiaztapenak egiteko.
- Gutxieneko parte-hartze bat ez badago, lehiaketa bertan behera uzteko eskubidea du antolakuntzak.
- Proiektuaren ezaugarriren bat betetzen ez bada, lan hori zuzenean lehiaketatik kanpo geratuko da.
- Epaimahaiak aurkeztutako lanen artean aipamen berezia egiteko ahalmena dauka. Horrek ez du ordainsaririk izango, baina bai merezitako onarpena.
- Epaimahaiak horrela erabakiz gero, sariak hutsik geratuko dira.
- Talde berdinak epaimahaiaren eta erabiltzailearen saria eskuratzeko aukera izango du.
- Lanak aurkeztu beharko dira Creative Commons lizentziapean.
- Bideoetan adin txikikoak agertzen badira, egileak baimena bermatu beharko du (adin txikikoen guraso edo tutoreen baimen sinatua aurkeztuta).
- Gai tratamendua: Ez dira onartuko arraza, sinesmen, etnia, adin, erlijio, sexu, genero identitate, sexu orientazio, itxura fisiko edo pertsonen gaitasunak iraintzen, gutxiensten edo jazartzen dituzten lanak. Hala ere, antolatzaileek ez dituzte bere egiten bideo-istorioetan egiten diren adierazpenak, erabilitako irudiak edota isuritako iritziak, beraz, ez dute horien gaineko inolako erantzukizunik.